

93 Zenbakia - Data: 05/08/2005

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK DEIERRI

Deierrin etxebizitzak zaharberritzeko laguntzak arautzen dituen ordenantza behin betikoz onetsita

Deierriko Udalak 2005eko martxoaren 23an egindako osoko bilkuran hasiera batez onetsi zuen aldaketa puntual bat Deierriko etxebizitzak zaharberritzeko laguntzak arautzen dituen ordenantzan.

Hasierako onespeneren iragarkia maiatzaren 16an argitaratu zen, 2005eko 58. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe igaro baita, behin-behineko onespena behin betikoa bihurtu da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarri bezala. Hortaz, jarraian haren testua ematen da oso-osorik.

Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 326. artikulua ezartzen du ordenantzek ez dutela eragin juridikorik izanen, beraien testua Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratzen ez den bitartean eta Estatuko Administrazioak edo Foru Komunitatekoak toki entitateei egin dituzten egintzak edo harturiko erabakiak deusezta ditzaten eskatzeko duten ahalmena erabiltzeko epea amaitu ez deino.

Deierrin, 2005eko ekainaren 28an, Alkate udalburua, Alvaro Nicuesa Santamaría.

ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

1. artikulua. Xedea.

Etxebizitzaren zaharberritzea bultzatzeko asmoz, ondotik aipatzen diren obrak sustatzeko Udal honek ematen dituen dirulaguntzak arautzea da ordenantza honen xedea.

- a) Fatxadetako konponketak: balkoiak, leihoak, egarbeak, teilatu-hodiak, zorrotanak, kanpoko zur lanak, pintura eta eraikinen apainketa orokorra.
- b) Estalkiko konponketak: teilatuak, tximiniak, luzernarioak, isolamenduak.
- c) Etxebizitzak zaharberritzea, haietan bizi ahal izateko egokitzuz, indarra duten foru aginduetan zehaztu bezala fatxada, estalki, isolamendu, egitura eta eraikinen elementu komunetako instalazio orokorreari buruz.
- d) Oztopo arkitektonikoak kentzea etxebizitzetan.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

Horrelako obrak egiten diren eraikinetarako emanen da laguntza baldin eta udal teknikari edo baliokide eskudunek adostasun txostena egina badute eta Deierriko Udal Planean hiri lurzoru finkatu gisa mugatutako aldearen barnean badaude, non ez den beste eremu bat aurreikusten kasu berezietan.

3. artikulua. Baldintza orokorrak.

Udalaren laguntzak hartzeko aukera dute ondoko eraikinek:

_Etxebizitzarako erabili beharko da eta babes graduren batekin katalogatua egon beharko du, edo 75 urtetiko gorakoa izan.

_Blokeko etxebizitzek 50 urtetik gorakoak izan beharko dute eta aurrekontua 1.202,02 eurotik gorakoa (200.000 pezeta) izanen da etxebizitza bakoitzeko.

Jarduketa eta obra guztiek bermatu beharko dute bat heldu direla teknika eta eraikuntza aldetik eraikinaren kontserbazioarekin, araudiak, planeamenduak eta ordenantza aplikagarriek xedatzen dutenari egokitu zaizkio, eta Udaleko departamentu eskudunak edo harekin parekatutakoak beharrezkotzat jotzen dituen obrak eginen dira. Bestetik, eraikinaren erabilera, segurtasuna edo kanpoko estetika hobetuko dituzte.

Laguntza hauek biltzeko, jatorrizko diseinu edo tratamenduak berreskuratu beharko dira fatxadetan edo txostenetan desegokitzat jotzen diren elementuak kendu edo egokitu (pertsianetako kaxak, fatxadetako kableak, kartelak, idazkunak, markesinak, etab.).

Eraikinaren elementu komunen batean (lehioak...) eragina duten obrek auzo komunitatearen baimena behar dute, bizitza bat baino gehiagoko eraikina bada.

Ez dute Udalaren laguntzarik hartuko honelako jarduketek:

_Planeamenduan antolamendutik kanpo dauden eraikinetako obrak.

_Barne lokaletako egokitze edo apainketa pribatibo eta bakarrari dagozkion obrak, horiekin batera jarduera babesgarriak egiteko beharrezkoak direnean salbu. Udaleko departamentu eskudunak edo harekin parekatutakoak nahitaezkozat jotzen dituenak egiten ez badira, orduan ere ez dira obrak babestuko.

_Fatxada eraistea eta haren funtsezko aldaketa edo osotara hustea. Salbuespenez, hirigintzako egokitzapenak egiteko (derrigorrezko lerrokadurak) onartzen da fatxadak hein batean eraistea edo osotara hustea, betiere eraikinak 100 urte baino gehiago badu, andeatze egoerak komenigarri egiten badu eta ezaugarri tipologikoei eusten bazaie.

_Eraikinaren bolumena eta/edo azalera eraikia handitzea.

4. artikulua. Udalaren laguntza motak.

Aipatu baldintzak betetzen dituzten obrek Udalaren laguntza biltzen ahal dute, bestelako laguntzak, hala nola Nafarroako Gobernuarenak, eskatu ala ez.

Udalaren laguntzak izaten ahal dira:

a) Udal tasen ehuneko ehuneko dirulaguntza, obra lizentziagatik eta eremu publikoa

okupatzeagatik.

- b) Obra gauzatzeko aurrekontuaren 100eko 2ko dirulaguntza, mugarik gabe.
- c) Laguntza bereziak hitzarmen bidez.
- d) Aholkularitza.

5. artikulua. Obra gauzatzeko aurrekontuaren 100eko 2.

1. artikulua aipatzen dituen obrek haiek gauzatzeko aurrekontuaren 100eko 2ko dirulaguntza bilduko dute, aurrekontu arruntean horretarako bereizten den kontusailaren kargura, baina horrek ez du galarazten bestelako baliabide bereziak ematea komenigarritzat jotzen bada; betiere, urteko ekitaldian higiezin berean bestelako zaharberritze lanik egin ez bada.

Hasiera batean, onuradunek dagozkien zergak eta tasak ordaindu beharko dituzte.

_Onuradunak.

Obra sustatzaileak dira laguntzaren onuradunak, baldin eta aipatu baldintzak bete, laguntza eskatu eta behar den dokumentazioa aurkezten badute. Aurretik, udal departamentuaren edo baliokide eskudunaren adostasun txostena beharko da. Laguntzak obrak burututakoan izanen dira behin betikoak eta orduan bilduko dira, ikuskapena egin eta espedienteko baldintzak bete direla adierazten duen azkeneko txostena egin ondoan bildu ere.

6. artikulua. Laguntza bereziak hitzarmen bidez.

Zaharberritzeko jarduera berezietarako hitzarmenak sina daitezke, erabilera publikoko ekipamenduetara ere zabaltzen ahal direnak, ordenantza honetan aurreikusitako laguntzak konbinatuz eta are jarduketa horietan diru baliabide bereziekin parte hartuz, edo eskura diren baliabide material nahiz teknikoekin eta giza baliabideekin. Hitzarmen bidezko laguntza bereziak interes arkitektonikoa duten eraikinei bakarrik aplikatuko zaizkie edo Deierriko udal planean ingurumen balio handiena dutenei.

7. artikulua. Aholkularitza.

_Motak.

- a) Txosten teknikoak eraikuntzaren egoeraren gainean.
- b) Aholkularitza lizentzia eta laguntzen tramitazioaren gainean.
- c) Aholkularitza obra gauzatzeko.
- d) Eta, oro har, zaharberritze arloan eskatzen diren gai guztietan aholku ematea, gaitasuna eta behar diren baliabideak izanez gero.

_Onuradunak.

Edozein partikular, komunitate edo entitate izanen da laguntza hauen onuradun, udal departamentuari edo baliokide eskudunari eskatuz gero.

8. artikulua. Onuradunak.

Laguntza hauen onuradunak izateko, obren sustatzaileek, aipatu baldintzak betetzeaz gain, eskatu egin beharko dute.

Onuradunek ordainduta izan beharko dituzte Deierriko Udalarekiko betebeharrak fiskalak, eta ibarrean erroldatuta egon beharko dute laguntza eskatzen dutenean.

Gutxienez, bost urtez egon beharko da erroldatuta.

9. artikulua. Laguntzak galtzea.

Ordenantza honetako baldintzak eta beharkizunak betetzen ez badira eta, gainera, txosten teknikoan beharrezkotzat jotzen diren obrak egiten ez badira, edo aurkeztutako dokumentazioko edozein datu faltsutuz gero, espedientearen gaineko udal laguntzak deuseztatu eta kenduko dira.

Laguntzen deuseztapena bat bakarrari egiten ahal zaio, jabe elkarteko bat bakarria baldin bada baldintzaren bat bete ez duena.

Zaharberitze obretan eskatzaileak Deierriko udal planeko araudia edo obra lizentzia emateko ezarritako baldintzak bete ez baditu, orduan ere ordenantza honetan araututako laguntzak galduko dira.

10. artikulua. Laguntzen tramitazioa.

Deierriko Udalaren Erregistro Orokorrean tramitatuko dira laguntzak, obra lizentziaren eskaerarekin batean, edo eskaera horren ondoko hilabetean. Agiri hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

a) Obra lizentziaren eta laguntzen eskabidea. Bertan adieraziko dira obra mota, banku entitatea eta, dirulaguntzak zer kontutan eskuratu nahi diren eta haren zenbakia, baita obrak burutzeko epea ere.

b) Jabearen edo komunitateko ordezkariaren N.A.N.aren fotokopia eta erroldatze agiria.

c) Jabe elkartearen akordioa, non adieraziko baita obrak egitea erabaki dutela, laguntzen espedientea kudeatzeko ordezkari bat izendatu dutela eta jabe bakoitzak obran duen portzentajea.

d) Eskatzailea norbaiten ordezkari bada: horren frogagiria.

e) Egin beharreko obren txostena, materialen kalitatea eta guzti.

f) Gaur egungo egoeraren krokisa eta proposatutakoa, ahal dela akotatua.

g) Obraren aurrekontu zehaztua, neurketak, kalitateak, prezio unitarioak eta guzti. Proiektu teknikoa (4 kopia) eta obra bukaerako egiaztagiria, obra motak horrela eskatzen badu baizik ez dira aurkeztuko, eta kasu horretan ez da beharrezko izanen e) eta f) puntuak betetzea. Aldiz, proiektu teknikoa eta obra bukaerako egiaztagiria beharrezkoak dira obrek honelakoei eragiten dietenean:

_Eraikinaren egiturari: habeak, zutabeak, karga-hormak, harlauzak, zertxak, gapirioak...

_Eraikinaren fatxadei: bao berriak irekitzea, fatxadaren osaketari funtsezko aldaketa eragitea...

_Etxebizitzaren barneko banaketari: tabikeetan funtsezko aldaketa eragitea, sukaldearen eta bainugelaren kokalekua...

h) Udaleko zerbitzu tekniko eskudunek edo haiekin parekatutakoek inoiz eska ditzaketen agiri osagarriak (argazkiak).

Obra burutu ondotik, Udalari jakinaraziko zaio, ikuskapena egin dezan eta eskabidea ebatz dezan.

11. artikulua. Laguntzak jasotzea.

Obrak bukatutakoan eta obra lizentziarekin, lehen erabilerarako lizentziarekin, dagokionean, eta udal teknikarien edo baliokide eskudunen txostenekin bat heldu direnean egingen da espediente bakoitzari dagozkion laguntzen likidazioa.

Zerbait betetzen ez dela ikusiz gero, eskubidea galduko da, eta bestelako ekintzak ere bultzatzen ahalko dira.

12. artikulua. Laguntzak onartzeko lehentasun irizpideak.

Eskatutako laguntzen zenbatekoa aurrekontuko baliabideak baino gehiago denean, horiek onartzeko lehentasun ordena ezartzen ahal da irizpide hauen arabera:

1. Eraikinaren katalogazioa edo interes maila.
2. Aurreikusitako obren ezaugarriak eta haien aurrekontuak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa._Ordenantza honen interpretazioa Udalarena da, ez beste inorena.

Bigarrena._Udalak noiznahi frogatzen ahalko du obrak zuzen egiten ari diren.

Hirugarrena._Ordenantza honek behin betiko onespenetik aitzina hartuko du indarra.

__ __ L0515294 __

N.A.O. Aurkibidea